



2006-11-15

PASAIA / Liburutegiek ipuin kontaketa saioak antolatu dituzte.

U. Etxebeste

Pasaiaiko liburutegiek ipuin kontaketa saioak antolatu dituzte datozen egunetarako. Miriam Mendoza izango da ipuin kontalaria, eta lehenengo emankizuna gaur eskainiko du Antxoko liburutegian (Kultur Etxean), 18:00etatik aurrera. Bigarren saioa etzi izango da, ordu berean, Trintxerpeko liburutegian.

Datorren astean izango da Miriam Mendoza Donibane eta San Pedroko liburutegietan: Itsas Mendiko liburutegian asteazkenean, eta San Pedrokoan ostiralean, hilak 24. 4-7 urte bitarteko haurrentzako dira kontakizunak.